

**EHBILDU, PSE, PP, UPyD ORDEZKARITZA
POLITIKOEKIN IZANDAKO BILERETAN
AIPATUTAKO OINARRIZKO LAN-TXOSTENA.**

2012ko urriaren 30a eta 31a

A.- AKORDIO EKONOMIKO ETA SOZIALA .

B.- BAKEA ETA ELKARBIZITZA .

C.- EUSKAL AUTOGOBERNUAREN ETORKIZUNA .

A.- AKORDIO EKONOMIKO ETA SOZIALA.

1. AURREKONTUEN OREKA ETA EGONKORTASUNA.

Murgilduta gauden egoera ekonomiko larri honetan, ezinbesteko gertatzen da Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde esparru nagusiek (Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak) kudeaketa honi aurre egiteko tresna nagusia izatea, aurrekontuak alegia .

Aurrekontuak dira erakunde esparru bakoitzean politika publikoei eta gobernuaren ekimenari bizitasuna ematen dien oinarrizko elementua. Unean uneko koiuntura politikoa harago, gehiago edo gutxiengoetatik harago, gizartean dauden arazoak konpontzeko balio behar du.

Aurreko ekitaldian, oraingoaz besteko eraketa politiko -instituzional batekin, talde politikoen ardura aurrekontuen egonkortasunerako akordioak ekarri zituen, euskal erakunde sareari lagundu ziotenak, bere kudeaketaren lehentasunak garatzeko orduan. Gaurko honetan, pairatzen dugun depresio ekonomiko sakon honetan, inoiz baino beharrezko egiten zaigu akordio hori.

Zentzu horretan, eta Euskal Autonomi Erkidegoko erakunde bakoitzak bere esparruan ezarriko dituen irizpideetatik aparte, Euzko Alderdi Jeltzaleak proposatzen du aurrekontu egitasmo horiek onartuak izan daitezela erraztea (ez eragozte) hala toki erakundeetan, nola Herrialde bakoitzeko Batzar Nagusietan eta Eusko Legebiltzarrean.

Talde politiko bakoitzak izango du esparru legegilean aurkeztuko diren kontu publikoekin izan dezakeen desadostasuna adierazteko aukera, baina ez dira osoko zuzenketak babestuko, tokian tokiko aurrekontuak onartzea eragotziko dutenak, eta ez dira zatikako zuzenketarik hitzartuko, tokian tokiko gobernuak aurkeztutako egitasmoen filosofia eta edukiak eraldatuko dutenak. Dagokien organo exekutiboekin adostutako transakziozko zuzenketak baino ezin izango dira aurkeztu eta onartu.

Akordio honek erakunde egitura osoari emango dio bere funtzionamendurako oinarrizko tresna izateko aukera, eta bere oinarrizko helburua izango da erakundearen beraren egonkortasuna eta ziurtasuna, krisialdi ekonomikoari aurre egiteko politika publikoak garatzeko orduan.

Akordio hau indarrean egongo da 2013 urteko ekitaldian .

Halaber, ardurak gidatuta, Eusko Jaurlaritzak bera, bere egonkortasuna eta oreka bilatzeko xedez, honako konpromiso hauek hartzen ditu :

- 1) LEGEGINTZALDIAN DEFIZIT PUBLIKOA MURRIZTEKO BIDE ADOSTUA EZARTZEA .
- 2) ESTURA ETA GASTU ARRUNTAREN MURRIZKETA.
- 3) INBERTSIO ETA EGITASMO ESTRATEGIKOAK AURREIKUSITAKO DIRU SARREREN EBOLUZIORA EGOKITZEA. LEHENTASUNA POLITIKA SOZIALARI EMANGO ZAIO .
- 4) LAN-MAHAI PARTEKATUA –Eusko Jaurlaritza, Foru Aldundiak eta Udalak (EUEDEL)- POLITIKA PUBLIKOAK KOORDINATZEKO JARDUERA BIKOIZTUAK EKIDIN ALDERA .
- 5) ERAKUNDE SAREA, SOZIJETATE PUBLIKOAK, ERAKUNDE AUTONOMOAK ETA ERAKUNDE PARTEKATUAK ZENTZUZ ANTOLATZEA ETA ARRAZIONALIZATZEA.
- 6) ENPLEGU PUBLIKOA MANTENTZEKO ETA NEURRI EZ TRAUMATIKOAK HARTZEKO KONPROMISOA, 1. KAPITULUKO GASTUA EZ IGOTZEKO HELBURUAREKIN.

2. ZERGA POLITIKA BERRIA JARDUERA EKONOMIKOAREN ETA ENPLEGUAREN ALDE. IRUZURRAREN KONTRAKO BORROKA.

Aurreko agintaldiko adostasun politikoaren eta onartu ziren egonkortasun akordioen ondorioz, indarrean daude orain Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Batzar Nagusiek onartutako zerga neurriak. Neurri hauen aplikazioa 2012 eta 2013 ekitaldietara lotuta daude. Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, araudiaren indarraldia 2012 urtean amaitzen da, eta beraz, premiazko dugu modifikatzea.

Zergei buruzko neurri hauek, araudi propioko tributu sistema osoari eragiten diotenak, adostasun osoz onartu ziren, eta harmonizazio gradua jaso zuten Zergen Koordinazio Erakundearen aldetik.

2013 urterako eta aurreko urteetarako ere, araudi hori berriztatzeko dugun beharrizan horren aurrean, EAJ-PNVk zera proposatzen du :

1. Alderdi politikoaren ordezkari batzordea eratzea, honako zergen erreformarako aukerak planteatuz: PFEZ, Sozietateak, Ondorengoak eta Dohaintzak.

Proposamen hauen helburua izango da, ahalik eta zerga progresibotasun mailarik altuena lortzea, jarduera ekonomikoa bizkortzea eta zerbitzu publikoei eusteko behar besteko baliabideak lortzea.

2. Batzorde hau osatuko dute alderdi politiko bakoitzeko hiru ordezkariak. Beren lanak egin beharko dituzte, indarrean dagoen erakunde egituraketarekin ados, lanetik irtengo diren testu hauek Foru Aldundiek eta Eusko Jaurlaritzak Zergen Koordinazio Erakundean aurkez ditzaten. Bertan aztertuko dira 2013 urteko lehen hiruhilekoan "harmonizazio" gradua jasotzeko.
3. Oinarrizko adostasun maila lortuta, arau aurreproiektu berriak dagokien Batzar Nagusietara bidaliko dira bertan onartzeko. Ekimenak gauzatzeko tramitea denboraz eta formaz koordinatu beharko da.
4. Ondarearen gaineko Zergari dagokionez, eta Gipuzkoako Foru Aldundiak "Aberastasun handiak" izeneko aurreproiektua egin eta onartu duenez, akordio honetan parte hartzen duten alderdiok konpromisoa hartzen dute aztertuko eta adostuko dutela Zergen Koordinazio Erakundean, Herrialdeetan behin betiko onartu baino lehen. Tramite hau, alderdi politikoaren batzordean ezarritako eta proposamen honen bidez planteatutako PFEZ, Sozietate, Ondorengotza eta Dohaintza zergen gaineko ebazpenak baino lehen egin daiteke.
5. Foru-erakunde bakoitzak, aurrekontuak onartzeko aldi berean, araudi berezia aurkeztuko du iruzur fiskalaren kontrako borrokarako kontrol publikorako sistemak indartzeko eta hobetzeko. Gai honetarako araudi propioa egingarria izango da, herrialde historiko bakoitzak arlo horretan duen egoera berezia dela eta.
6. Eusko Jaurlaritzak hitza ematen du erakunde-arteko lankidetzara eta informazio harreman estuagoak mantenduko dituela, eta herrialde erakundeekin ados, hiritarren artean iruzur fiskalaren kontrako sentiberatze kanpaina garatzeari ekingo dio .

Beste alde batetik, Euzko Alderdi Jeltzalearen konpromisoa da, hurrengo legegintzaldi honetan, Eusko jaurlaritzak, herrialde erakundeekin lankidetzan, Itun Kontzertu Ekonomikoaren defentsan eta babes lanean aurrera egingo duela, Euskal Autonomi Erkidegoak oraindik bere gain eta bere erakunde eskudunek bereganatu ez dituzten zerga gaitan arautzeko duen ahalmena handitzeko.

3. EKONOMIA BIZIBERRITZEA ETA ENPLEGUA

Egitasmoaren inguruan egingo duen diskurtsoaren markoan, Lehendakariak ekimen batzuk aurkeztuko ditu, oraingo krisi ekonomikoari aurre egiteko xedez eta jarduera biziberritzeko eta enplegu berriak sortarazteko. Ekimen hauek guztiak dira euskal erakunde egituraketa osoarekin partekatzeko eta garatzeko, eraginkortasun eta lankidetzaren printzipioetan oinarrituta.

Jarduera egitasmoan planteatzen diren neurrien artean hauek dira azpimarragarrienetakoak :

- 1) EKINTZAILE ETA AUTONOMOEI LAGUNTASUNA EMATEA.
- 2) BERRIKUNTZA BULTZATZEA.
- 3) ENPRESA TXIKI ETA ERTAINEN NAZIOARTEKOTZEA BULTZATZEA.
- 4) POLITIKA INDUSTRIALA ETA LEHIAKORTASUNA GARATZEA.
- 5) ENPLEGUA BERRESKURATZEA ETA MANTENTZEA .
 - ENPLEGUAREN ALDEKO SOLIDARIOTASUN FONDOA .
 - ESKUALDEAK BIZIBERRITZEKO PLANAK .
 - ERAIKUNTZA ARLOAN ENPLEGUA DINAMIZATZEA. ETXEAK BERRIZTATZEKO PLANA .
 - LANBIDE LAN MUNDURATZE ARLOAN BIDERATZEA .
 - KLAUSULA SOZIALAK KONTRATAZIO PUBLIKOAN.
- 6) GAZTE ENPLEGURAKO PLANA
 - ENPLEGURAKO HOBEKUNTZA PROFESIONALA: NAZIOARTEKOTZE BEKAK ETA GRADUONDOKO BEKAK .
 - GAZTEEN TALENTUA SUSTATZEA, ANTZEMATEA ETA LOTZEA .

- LAN MUNDURATZEKO LEHEN URRATSA SUSTATZEA, PRAKTIKA KONTRATUAK ETA PRESTAKUNTZA KONTRATUAK .
- GAZTEEN AUTOENPLEGUA ETA EKINTZAILITZA SUSTATZEA .

4. GIZARTE-ZERBITZUEN DEFENTSA ETA MANTENTZEA.

Biziberritze ekonomikorako eta enplegurako proposamenei lotuta, Lehendakarigaiak bere egitasmoan aurkeztuko dituen proposamenei neurri zehatzak aurreikusiko dituzte gizarte zerbitzuak mantentzeko eta, modu berezi batean, zerbitzu sozialei eusteko. Neurri hauek beharrezko dute adostasuna, erakunde esparrutik zein esparru politiko osoaren aldetik.

Zentzu honetan, EAJ-PNVk bere egitasmoan islatzen duen konpromisoak akordio maila bera beharko du eta honakoak aurreikusten ditu :

- 1) GIZARTE-LAGUNTASUNEN BERMEA ETA ERAGINKORTASUNA HOBETZEA. GIZARTERATZEKO ETA LAN MUNDUAN SARTZEKO POLITIKAK LEHENESTEA.
- 2) ERAKUNDE-ARTEKO LANKIDETZA BULTZATZEA, GIZARTE-POLITIKEN JASANGARRITASUNA ETA FINANTZAKETA BERMATZEKO.
- 3) ENPLEGU-ZERBITZUEKIKO KOORDINAZIOA PIZTEA.
- 4) ETXEBIZITZA BABESTUA ESKURATZEA SUSTATZEA, BEREZIKI ALOKAIRU SOZIALEKO ETXEBIZITZAK.
- 5) GIZARTE PRESTAZIO ETA ZERBITZUEN KONTROL ETA BERMEA.

B.- BAKEA ETA ELKARBIZITZA

ETA erakundeak bere jarduera armatua behin betiko amaituko zuela iragarri ostean, euskal erakundeek, dagokien aniztasunean osatuta, ardura bat dute elkarbizitza-zerumuga berria ezartzeko. Xede horrekin, ezinbestekoa da, ahal den akordio zabalenean oinarrituta, gatazka suntsitzaileak iraun dituen hamarkaden ostean, bakea, gizatiartzea eta adiskidetze soziala lortzeko politikai ekitea .

1. OINARRIAK, KONPROMISOAK ETA HELBURUAK :

Oinarri etiko bat: gizakiaren duintasuna

Konpromisoa. Giza eskubide guztiak defendatzeko eta sustatzeko konpromisoa hartzen dugu; eta ondorioz, bortxakeriari eta bere mehatxuari, horren defentsa edo legitimazio nahiari egingo diegu aurka .

Helburua. ETaren bortxakeriaren eta gainerako giza eskubideen urraketan eta azken 50 urteotan izan dituen ondorioen kontakizun argia osatzea, iraganaren balorazio kritikoa egiterik izan dezagun eta biktimei zor zaien ordaina emateko prozesuak jarraitzeko eta burutzeko.

Oinarri demokratikoa: aniztasuna

Konpromisoa. Aniztasunarekin dugun konpromisoa onartzen dugu, hau da, oinarri demokratikoa duten egitasmo guztiak egingarri direla defendatzea .

Helburua. Esparru ezberdinetan, gizatiartze prozesu eta politikak bultzatzea eta osatzea, bake soziala sendotzeko eta bortxakeria oro edo giza eskubideen urratze oro desagerrarazteko helburuarekin .

Oinarri metodologikoa: elkarrizketa

Konpromisoa. Elkarrizketarekin eta akordioarekin dugun konpromisoa geureganatzen dugu, gure arteko ezbaiak konpontzeko dugun aukera nagusia delako; eta, edozein kasutan, printzipio eta prozedura demokratikoei zor diegun begirunea zainduz.

Helburua. Elkarbizitza eta gizarte adiskidetzarako kultura berria sustatzea, elkar onartzean, elkarriketa anitzean eta arduraren oinarrituta, giza duintasunaren defentsa baloreen lehen tokian jartzeko.

2. PROPOSAMENAK:

1. BAKE ETA ELKARBIZITZA LAN-TALDEA

Eusko Legebiltzarrean, aurreko Legegintzaldiaren amaieran sortu zen Bake eta Elkarbizitza Lan-taldeari jarraipena ematea, lan esparru partekatua sortzeko, bake soziala indartzeko lehenetsi behar diren politika publikoak bultzatzeko. Lan-taldearen lanak honako hauetan oinarrituko dira:

- Gai berezien inguruko adostasunetara iristea, bake elkarbizitza eta elkarbizitzarako kultura berria indartzeko.
- Oroimen, aitortza eta biktimei ordaina emateko politika publikoei jarraipena egitea eta bultzatzea .
- Ebazpena adostea, espetxe-politikaren inguruan adostutako gomendioekin .
- Euskal gizartean giza eskubideak sustatzeko eta hedatzeko politika publikoak bultzatzea. .

2. OROIMENAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN INSTITUTUA

Oroimenaren, Bizikidetzaren eta Giza-Eskubideen Institutua sortzea, biktima guztiei oroimena eta aitortza eskaintzeko politika publikoak koordinatzeko, eta bake eta giza eskubideen kultura sustatzeko eta hedatzeko. Institutuaren esfortzua honako gaien inguruan garatuko da:

- Giza eskubideen urraketen memoria egitea, aldi ezberdinak aurreikusiko dituen: guda zibila, diktadura, trantsizioa eta demokrazia.
- Legeak ezarritakoari jarraiki terrorismoaren biktimei zor zaien aitortza eta ordain prozesuak burutzea.
- Poliziaren gehiegikerien biktimei eta giza eskubideak urratuak izan dituzten biktimei aitortza eta ordaina emateko prozesuak garatzea eta burutzea, nazioartean dauden estandarren arabera.
- Guda Zibileko edo Frankismo garaiko biktimei aitortza eta ordaina emateko prozesuak garatzea eta osatzea.
- Euskal gizartean giza-eskubideak sustatzeko eta hedatzeko politika integrala garatzea.

3. BAKE ETA GIZA-ESKUBIDEEN III EUSKAL PLANA

Euskadin bake eta giza-eskubideen inguruko diagnosa eguneratzea eta "Bizikidetzak Demokratikoa eta bortxakeriaren deslegitimazioa 2012-2011" izenburuko planean bildutako ekintzen betearazpena zenbakitan eta kualitatiboki aztertzea .

Era partekatuan eta adostuan, Bake eta Giza-Eskubideen III. Plana egitea, eta indar berezia jartzea jadanik dauden koordinazio esparruak sendotzeko lanean (Aholku batzordea, Saila arteko batzordea, Elkarte arteko foroa) .

C.- EUSKAL AUTOGOBERNUAREN ETORKIZUNA .

2013 urteko lehen seihilekoan, Eusko Legebiltzarrean, euskal autogobernuaren etorkizunaren inguruko proposamena egiteko Lan-taldea eratuko da .

Ekimena eginda, Lan-taldean ordezkaturik egongo den talde bakoitzak ospe oneko jurista biren parte hartzea planteatuko du, aurkeztutako agiria aztertzeko eta adostutako gaien inguruko testua egin ahal izateko. Aritu talde honen lana amaituta egongo da eta ondorioak amaituta eta entregatuta, gehien jota, urte beteko epean.

Lan-taldeak, lortuko diren adostasun puntuen arabera, artikuludun testua egingo du, tramitatua eta onartua izango dena, euskal gizarteak bere onespenean eman diezaion.